

ETXERIK GABEKOEN BORROKA SAO PAULON: **OKUPAZIOA**



Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Era o Hotel Cambridge* (Cambridge Hotela zen) filma, etxerik gabeko 700 lagunek okupatu zuten hogeit solairuko hotel abandonatuari buruzkoa. Etxe okupatuetan 4.000 familiatik gora bizi dira Sao Paulon eta hango herri mugimenduen borroka esparru indartsuenetako bat da.



Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz

“Zorte handia da dokumentalaren eta fikzioaren arteko film hau Donostiako Zinemaldian aurkeztea, baina zorte handiagoa da nire alboan emakume hau izatea: Carmen Silva Ferreira. Ez bada-kizue zein den, Brasilgo etxebizitzaren aldeko borrokaren benetako liderretako bat da, oso errespetatua”, dio zuzendariak protagonista nagusia aurkeztean.

“Ikusiko duzuen filma Brasilgo errealtatearen isla da, milaka lagun bizi dira kalean, fabelak hazten doaz hirien kanpoaldean, eta aldi berean milaka etxe eta eraikin huts daude abandonatuta hiriaren erdialdean –goxo eta tinko hitz egiten du Silvak-. Sistema oso injustua da ordea, Sao Paulon bertan adibidez, gobernuak etxe hauek babesten baititu, bertara sartzen den jendea berriz ere kalean utziz legearen izenean. Etxebizitza hauek abandonatu eta zergetan estatuari dirutza zor dioten jabeen morroi lana egiten du estatuak; ez du zentzurik”.

1980ko hamarkadatik etxebizitza eskubidearen aldeko mugimenduak kalean lanean aritu diren arren, arazoaren larria ikusita, mugimendua bateratu eta

2003ko gau batean, 2.800 pertsonak lau eraikin okupatu zituzten Sao Paulo erdialdean, mahai gainean kolpea joz. 20 urtetik gora hutsik zeramatzen apartamentu eta gela hutsetan beren etxebizitzak antolatu zituzten masiboki. Sao Paulon esparru horretan lanean ari ziren mugimenduek ekinga zuzenaren bidez etxerik gabeko langileei eta gizarte bazterketan erortzearen ziren herritarrei ikusgarritasuna ematea helburutzat hartu zuten. Hiriaren erdigunean eraikinak okupatzen hasi ziren larrialdiko etxebizitza plan bat eskatuz. 2004an formalizatu zen mugimendua, hainbat eragileren koordinazio gune gisa eta FLM izena jarri zioten: Frente de Luta por Moradia (Etxebizitzaren Aldeko Borroka Frontea). Egun, esparru hau lantzen duten mugimendu gehiago ere badaude.

Etxerik gabeko herritarrak antolatzen

“*Quem não luta está morto*” oihuka amaitu duten asanblada dokumentatu dute *Era o Hotel Cambridge* filmean. Eraikin osoko biztanleak batu dira, lehen solairuan, Carmen Silvak esateko duena entzuteran.

“Gaur okupazioaren festa egingo dugu. Denok hartuko dugu parte, eta gure artean berriak zaretenok, derri gor etorri behar duzue. 48 ordu iraungo ditu eta beste hiru bloketako lagunak ere bidean dira”. Gauez Sao Paulon barrera bizian doazen hainbat autobus ikus daitezke segidan. Erdialdeko eraikin huts baten aurrean geratu, berrarekin hormigoiz zigitatutako atea berehala hautsi eta minutu gutxian ehunka lagun barrura sartu dira. Ikuslea arnasik gabe uzteko modukoa da irudiok transmititzen duten tentsioa. “Aurrera, sartu, azkar, zure etxea da!” eta “etxebizitza eskubidea da, aurrera!” gisako animoak ematen dizkie Silvak banan-banan autobusetatik korrika jaisten ari diren eta Amerikako metropolirik handienean etxerik gabe bizi diren adin guztiatako paulistanoei. Behin denak eraikin abandonatuan sartutakoan, autobusek alde egin, atea nola hala bueltan itxi eta minutu gutxian polizia militarra etorri da, bozgorailuetatik ateratzeko esanez. Ezetx erantzungo diete barruan dauden ehunka lagunak. FLMko banderak zintzilikatuko dituzte leihoetan. Beste eraikin bat okupatuta. Beste borroka fronte bat irekita.

BBCk 2015eko martxoan *Bizitza Sao Paulon etxerik gabeko pertsonen okupatutako hoteletan* izeneko erreportajea jasotzen dutenez, Polizia Militararen arabera, 2013 hasieratik 2014 amaierara, 681 eraikin edo lursail okupatu zituzten. 2015ean 4.000 familia inguru bizi ziren Sao Pauloko erdigunean herri mugimenduek okupatu eta koordinatutako eraikinetan.

Fenomeno politiko hau aztertzen duen Belgikako Lovainako Unibertsitate Federalesko Jeroen Stevens urbanistak honela azaltzen du funtzionamendua: “Agenda komuna daukate okupazioentzat. Gizartean askok ez zeukaten pertsonen betebeharrak eta eskubideen inguruko kontzientzia eragiteko egiten dute lan”.

Mugimendu hauek hiriko erdigunean bizitzeko egin dute hautua, eta beraz, eszenatoki publikoan parte hartzeari buruzko eztabaida hedatu dute, Janaina Aliano Bloch soziologoak *Sao Pauloko erdiguneko etxebizitzaren aldeko borroka* lan mamitsuan idatzi duenez. “Beren aldarrikapenak ez dira bakarrik espazioaren segregazioaren aurkakoak, eskusio sozial eta politikoaren kontrakoak ere badira. Eztabaida politikotik kanpo uzten dituzten herri mugimendu hauek beren lekua aldarrikatzen dute”, dio Janaína A. Bloch-ek.

Beste 23 familiarekin batera bizi den Jehova meatzariarekin mintzatu dira BBCn. Ordura arte okupazioak “barra-basen gauza” gisa ikusten zituela dio, hauetako batera bizitzera joan behar izan zuen arte. Gutxiengo soldaterekin alokairua ere ordaintzeko gai ez diren milaka herritar prekarioren patua da: Kalendario egin, hiriaren kanpoaldera fabela batera miserian bizitzera joan edo etxe bat okupatu.

2007ko maiatzean, Amnistia Internazionalak Sao Paulo erdialdean okupatuta zegoen beste eraikin bat bisitatu zuen. Hau FLMko parte den MSTC mugimendua kudeatzen zuen eta ordezkaritza ia osoa emakumeek osatzen zuten. AI-k azaldu zuen mugimendurekin bat egiten zuten familia ia guztiak emakume baten esku zeudela, gehienak bazterkeria sozialetik gertu. AI-k mahai gainean jarri zuen MSTCko emakumei oso ongi etorri zitzaizkela mugimendu bateko parte izan eta askok lehen aldiz, aktibismo politikoan eta lidergoan esperientzia izatea. Brasilgo mugak gainditzea lortu zuen kanpaina indartsu baten ostean,

Udalak eraikineko biztanle guztiei hirian etxebizitzak hitzemateko balio izan zien.

Lurra urre eta espekulatzailerak pozik

MTSTko buruzagietako bat den Guilherme Boulos elkarrizketatu dute 2015eko abenduan *Ctxt* gunean. Bere hitzetan, “etxegabeen borroka asko hazi da krisi ekonomikoaren aurretik sakondu zen krisi urbanoagatik. 2004an higiezin enpresei emandako kredituak 5.000 milioi erreale ziren, 2014an 102.000 milioi erreale izatera iritsi ziren, hau da, %2.000ko igoera. Horrekin batera, etxebizitzaren prezioa zortzi urtean %212 igo da Sao Paulon, %260 Rio de Janeiron. Horrek jendearen kanporatzea dakar. Hirian gentrifikazioa oso indartsua da, eta Munduko Futbol Txapelketak eta Olinpiar Jokoek azkartu egin dute. Jendea erdigunetik oso urrun dagoen guztiara kanporatzen ari dira, eta nahiz eta 3 milioi etxebizitza publiko eraiki, oraindik ere prezioak gora doaz. Brasil etxegabeak sortzeko makina bat da”.

Brasilen lurra urre bihurtu zen bere hitzetan, eta alokairua, berriz, ordaindu ezinezko zerbait. Okupazioak ez dira soilik Sao Paulon izan, herrialdeko beste hainbat hiritan ere praktika zabaltzen doa. “Nire ustez, etxebizitzaren espekulazioaren leherketarekin zuzenean lotutako fenomeno da”, dio Boulosek.

Donostiako Zinemaldira itzulita, Carmen Silvak filmaren ostean txalo zaparrada jasota aldarria argitu die bertaratutakoiei. Ez dute ezer dohanik nahi. Beren etxea ordaindu nahi dute, bidezko prezioan.

2014ko irailaren 16an, azkenean Cambridge Hotela hustu egin zuten 250 polizia militarrek, 700 lagun kale gorrian utziz berriro. Istilu handiak izan ziren hirian etxebizitza defendatzera joandakoen eta polizia militarren artean. Egunkari kroniketan jaso zuten autobus bati su eman ziotela manifestari batzuek eta poliziak gomazko balak, gas negar eragileak eta soinu granadak bota zituela.

“Hedabideek ixilarazi arren, hemen arazoa kapitalismoa da. Lekuan leku forma aldatzen du eta Brasil oso basatia”, aldarrikatu du Silvak. Dokumentala mundu mailan proiektatuz presio egiten jarraituko dute, baita kalean etxerik gabek antolatzen ere. Izan ere, etxebizitza eskubidea praktikan jarri aldarrikatzen dute. Dioten moduan, borrokarik egiten ez duena hilda dago. ■